

HERRIA/LOCALIDAD:				ATARRABIA – VILLAVA	
HIZLARIA/INFORMANTE:				MARTÍN LATASA ITURRALDE	
DOKUMENTUA/DOCUMENTO:				20190306111808MARTINLATASA	
Elkarrizketa osoaren iraupena / Duración total de la entrevista bruta:				66'	
	IN	OUT	Iraupena Duración	TITULUA / TÍTULO	LABURPENA / ABSTRACT
1	00:00:00,00	00:04:28,28	00:04:28,28	01 Aurkezpena	Martin Iruñean jaio zen, 1946. urtean, baina Erasokoa da Imotz bailarako herri txiki batekoa. Bere izengoitia "Mattiko" da. Bere ama Oskotzen jaio zen eta ezkondu arte lantegi askotan lan egin zuen.
2	00:04:28,28	00:08:06,14	00:03:37,36	02 Etxea	Erasoko etxea amonarena zen eta Martinen amari utzi zion. Sukaldean tximinia eta sua zegoen eta amak beti bertan sukaldatzen zuen. Argindarra errota batetik hartzen zuten. Koltxoiaren betegarria arto hostoak ziren.
3	00:08:06,14	00:09:29,26	00:01:23,12	03 Gurasoekiko harremana	Gurasoekin harreman gutxi izan zuen. Martin hamar urte bete zituen arte aiton-amonekin bizi izan zen eta gero Itxasora (Basaburua) joan zen.
4	00:09:29,26	00:11:10,06	00:01:40,30	04 Lanean hasi	6 urtez ibili zen Golaratzen artzai lanetan. Gero Itxasoko etxalde batera morroi bezala lan egitera joan zen.
5	00:11:10,06	00:16:00,16	00:04:50,10	05 Lan esperientzia 1	Itxason zegoenean, lana goizeko seietan hasi eta gaueko hamarrak arte irauten zuen, astelehenetik iganderarte. Sei urtez bertan egon zen lanean eta ondoren enpresa ezberdinetan ibili zen. Kamioia gidatzeko baimena atera eta soldaduzka Burgosen egin zuen.
6	00:16:29,38	00:17:19,48	00:00:50,10	06 Lana Potasaseko meategian	Martinek Potasaseko meategian lan egin zuen lur azpian.
7	00:18:21,00	00:19:40,38	00:01:19,38	07 Potasaseko grebak	Potasaseko grebak eman zirenean Martinek ez zuen bertan lanik egiten. Garai hartako grebak oso garrantzitsuak izan ziren jende asko parte hartu zuelako.
8	00:19:40,38	00:23:43,26	00:04:02,38	08 Lan esperientzia 2	Kamioiarekin 22 urterekin hasi eta 7 urtez ibili zen garraiolari bezala. Ondoren Atarrabiako biltegi batean egon zen eta azkenik Atarrabiako udaletxeak ateratako oposaketara aurkeztu eta herri-lanetako zerbitzuen arduradunaren plaza atera zuen.
9	00:23:43,26	00:25:23,34	00:01:40,08	09 Udaletxean lanean	Udaletxerako lanean hasi zenean kartoia eta txatarra biltzen aritzen ziren gehien bat. Berarekin lanean ibili diren lankide ezberdinek eduki duten jarrera errepasatzen du.
10	00:25:23,34	00:26:50,00	00:01:26,16	10 Atarrabiara bizitzera	Martinek Atarrabia ezagutzen zuen aurretik bertan lanean ibili zelako. Etxea ibaiaren ondoan erosi zuen.
11	00:26:50,00	00:28:11,28	00:01:21,28	11 Nolakoa zen Atarrabia	Atarrabia lehen Fermín Tirapu biribilguneraino iristen zen. Handik eskuinera dena baratzak eta etxe zaharrak ziren. Eraikin berrien garapena azaltzen du.
12	00:28:11,28	00:29:11,06	00:00:59,28	12 Atarrabiako bizilagunak	Atarrabiara garai hartan iritsi ziren bizilagun gehienak, bera bezala, Nafarrak ziren. Basaburuatik jende asko etorri zen.
13	00:29:11,06	00:29:44,12	00:00:33,06	13 Zerbitzuak	Atarrabiara etorri zenean zerbitzu gutxi zeuden, denda gutxi batzuk eta eliza.
14	00:29:44,12	00:30:24,06	00:00:39,44	14 Harremana biztanleen artean	Atarrabiako bizilagunekin harreman gutxi zuen hasieran, bere lanarengatik (kamioiaria) beti kanpoan zegoelako.
15	00:30:24,06	00:31:05,42	00:00:41,36	15 Herriko medikua	Herriko medikua Hilario zen eta bere etxea Eras kalean zegoen.
16	00:31:05,42	00:31:23,46	00:00:18,04	16 Eskolak	Herriko eskola plazan zegoen. Ondoren, Lorenzo Goikoa eta Atargi eraiki zituzten.
17	00:31:23,46	00:31:47,04	00:00:23,08	17 Erlazioa ondoko herriekin	Martinek harreman gutxi eduki du gertuko herriekin.
18	00:31:47,04	00:33:55,06	00:02:08,02	18 Alkateak eta idazkaria	Alkate batzuk oroitzen ditu, José Mari Arrasate, Zabalza, Quirio eta Oteiza. Gerra ondorengo idazkaria gogoratzen du, alkatea baino botere gehiago baitzuen.
19	00:33:55,06	00:35:18,20	00:01:23,14	19 Lanpostuak	Garai hartako jendea fabriketan lan egiten zuen, Onenan gehien bat. Nekazaritzan jarduten ziren bizpahiru familia ere bazeuden.
20	00:35:18,20	00:36:24,34	00:01:06,14	20 Dendak	Atarrabian komertzio batzuk zeuden: udaletxearen ondoko denda bat, harategi bat, ekonomatoa... Las Eras kalean arropa denda bat zegoen.
21	00:36:24,34	00:37:24,20	00:00:59,36	21 Uholdeak	Martinek uholde batzuk gogoratzen ditu, azkena duela hiru urteko udan.
22	00:37:24,20	00:38:29,48	00:01:05,28	22 Auzolana	Auzolana egiteko ohituratik ez zegoen, baina Atarrabiako herriko plaza auzokide guztien artean egin zuten.
23	00:38:29,48	00:39:14,10	00:00:44,12	23 Arrasate okindegia	Herriko lehen okindegia Arrasate familiarena izan zen.
24	00:39:14,10	00:40:34,24	00:01:20,14	24 Atarrabiako lantegiak	Atarrabiako fabrikarik handiena Onena izan zen, gutxienez 200 lankideekin. Martinek Esparza lantegian lan egin zuen zazpi urtez, baina arduradunarekin haserretu eta utzi egin zuen.
25	00:40:34,24	00:42:16,42	00:01:42,18	25 Futbola eta txirrindularitza	Martini ez zaio futbola gustatu. Txirrindularekin, bestalde, asko ibili da, bereziki lanera joateko. Atarrabian txirrindularitzak zaletasun asko eduki du eta horren adibidea da Villaves taldea.
26	00:42:16,42	00:42:56,04	00:00:39,12	26 Garraio publikoa	Beti "Villavesa" autobusa ezagutu du, baina ondoko herrietara, gehienetan, oinez joaten ziren.
27	00:42:56,04	00:44:04,06	00:01:08,02	27 Euskara Atarrabian	Atarrabiara etorri zenean jende gutxi egiten zuen euskaraz. Ikastolaren sorrerak bultzada handia eman zion hizkuntzari.
28	00:44:04,06	00:47:28,32	00:03:24,26	28 Udaletxean lanean	Atarrabiako udaletxean "encargado de obras" lanpostuan egon zen, herri-lanetako zerbitzuen arduraduna. Agintzea baino, Martini egitea gustatzen zitzaion, batzuetan bere lankideen lana egitea ere. Herriaren mantentze lanak egiten zituzten gehien bat.
29	00:47:28,32	00:48:45,22	00:01:16,40	29 Umeen jaiotzak	Garai hartan emakumeek etxean erditzen zuten, baina bere seme-alabak amaetxean jaio ziren.
30	00:48:45,22	00:49:11,38	00:00:26,16	30 Umeen jolasak	Atarrabian parke gutxi zeuden. Mutilak kalean baloiarekin jolasten ziren eta neskak panpinekin.
31	00:49:11,38	00:50:07,22	00:00:55,34	31 Herriko tabernak	Lau taberna zeuden Atarrabian eta txikiteoan ibiltzeko ohitura zegoen.
32	00:50:07,22	00:52:00,30	00:01:53,08	32 Lankideekin arazoak	Herri-lanetako zerbitzuen arduradun bezala bere langile batzuekin eduki dituen gorabeherak azaltzen ditu.
33	00:52:03,22	00:53:15,00	00:01:11,28	33 Gorpuzti eguna	Herriko prozesiorik garrantzitsuena Gorpuzti egunekoak zen. Lehen zuziriak botatzen zituzten baina azkenean udaletxeak debekatu zituen.
34	00:53:15,00	00:55:39,44	00:02:24,44	34 Atarrabiako jaiak	Herriko festetan Martinek lan gehiago egiten zuen eta normalean ez zuen gozatzen. Gaur egungo festak lehengoak baino hobeak dira eta herriko plaza nagusian jende asko biltzen da. Egitaraua ez da asko aldatu.
35	00:55:39,44	00:57:00,34	00:01:20,40	35 Olentzero eta Errege Magoak	Hasieran ez zuten Olentzeroa ospatzen, beranduago hasi zen. Errege Magoen desfilea hasi zeneko oroitzen ditu. Urteekin dena joan da hobetzen.

36	00:57:00,34	00:57:46,08	00:00:45,24	36 Gaur egungo Atarrabia	Orain Martin gustura bizi da Atarrabian. Zerbitzu onak daude eta ez zaie ezer falta.
37	00:57:46,08	00:58:26,16	00:00:40,08	37 Atarrabiako ibaia	Lehen herriko jendeak ibaian bainatzeko ohitura zuen. Martini asko gustatzen zitzaion zubira joatea eta karramarroak arrantzatzea.
38	00:58:26,16	01:00:52,04	00:02:25,38	38 Erasorekin harremana	Erasora gutxitan doa. Lehen amuarrainak arrantzatzea joaten zen herriaren ondoan zegoen ibaira. Erasoko biztanleekin harremana mantendu du, nahiz eta gaur egun herrian oso jende gutxi bizi.
39	01:00:52,04	01:02:30,40	00:01:38,36	39 Matatxerria Erason	Erason matatxerria beti ezagutu du. Bere lagun batek 400 kiloko txerri bat hil zuen behin. Txerri horrekin pasa zen pasadizo bat kontatzen du.
40	01:03:24,36	01:05:07,06	00:01:42,20	40 Elizaren kontu lotsagabeak	Italiar batekin elizaren inguruan eduki zuen solasaldiaren inguruan hitz egiten du Martinek.